## PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

**Erakundea:** MUBIL Fundazioa
**Programa:** 010 - Mubil Fundazioa

**Programa mota:**
Finalista

**Misioa:**

Gipuzkoan Mugikortasun Berriaren Polo bat garatzea, lurraldearen gaitasunak bateratuz, enpresen sorrera bultzatuz, mugikortasun berria zabalduz eta Gipuzkoatik estrategia garatuz. Zentroa Gipuzkoako mugikortasun berriaren estrategiaren garapenean eragilea nagusia izango da.

Mubilen helburu orokorra da mugikortasun berriari lotutako industria-jarduera sustatzea eta jarduera sortzea, bai lehendik dauden enpresentzat, bai enpresa berriak sortuz eta haiei lotutako jarduera berriak sustatuz. Horretarako, lurraldean dauden gaitasunetan oinarritzen da, eta fundazio haren zeregina ekimenak koordinatzea eta katalizatzea da, beti ere hori gauzatzeko behar diren baliabideak emanez.

**Egoeraren diagnostikoa:**

Automobilgintzaren sektorea euskal industriaren sektore nagusietako bat da fakturazioari, enpleguari eta enpresei dagokienez (EAEko BPGaren %11,5 da). Gainera, erreferentzia garrantzitsuak ditu sektore pribatuan eta sektore osoari eusten dioten erakunde espezifikoetan (sektoreak 300 erakunde baino gehiago hartzen ditu). Lurraldeko teknologia-zentroak eta IKZak nazioarteko erreferentzia dira askotan, automobilgintzaren sektorean espezializatutako graduak eskaintzen dituzten unibertsitateak ahaztu gabe, baita Lanbide Heziketako egitura garrantzitsua ere.

Mugikortasunaren sektorea erabat aldatzen ari da, eta gaur egun gauden egoeran, iraunkortasunak are garrantzi handiagoa hartu du, mugikortasun berri bateranzko eraldaketa bizkortuz, non argi eta garbi ikusten baita ibilgailu elektriko gehiago egongo direla (adibidez, 2021ean, estatu mailan ibilgailu erabat elektrikoen matrikuluzioa %34,9 igo zen 2020arekin alderatuta). Eraldaketa dagoeneko errealitate bat da, fabrikatzaileak argi eta garbi ari dira egiten mugikortasun elektrikoaren esparruan estrategia argiak garatzearen alde, eta esku-hartze publikoak errekuntzako ibilgailuen erabilera murrizten ari dira eta ordezko bideak sustatzen ari dira, ibilgailu elektrikoa protagonista argia izanik.

Aurretik azaldutako guztiaren ondorioz, Gipuzkoan eta lurralde mugakideetan balio-kate bat egituratzen da, zeinak agerian uzten duen lurraldetik proiektu konplexuei ekiteko aukera, dauden gaitasunak oinarri hartuta. Horretarako, ordea, ezinbestekoa da gaitasun horien katalizatzaile bat edukitzea, eta, horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak MUBIL Fundazioa sortu zuen.

**Beharraren deskribapen xehatua:**

MUBIL Mugikortasun Berriaren Zentroa espazio fisiko bat da, non mugikortasun adimendun eta jasangarriari buruzko jarduerak, zientzia eta ezagutza garatuko diren. Mugikortasun Berriaren Poloaren erdigunea izango da, zeinak eragile inplikatu denak bilduko dituen.
Gaur egun, MUBIL Zentroa eraikuntza fasean dago, bere behin betiko egoitza izango den Eskuzaitzeta Industrialdean, eta orotara 9.700m2-ko azalera bat izango du.
MUBIL Poloaren helburua elkarlan-ingurunea zein ekosistema zabaltzen joango diren eragileak erakartzea da.
MUBIL Poloak hainbat jarduera garatuko ditu, eta gauzatze horretan, eragileei laguntza emango die aldaketa esanguratsuak emango diren mugikortasunaren arlo desberdinetan:
 Prestakuntza: prestakuntza egituretatik aldaketak egin beharko dira, eta, horretarako, gai energetikoekin eta arlo teknikoarekin lotutako arloetan profesionalak trebatuko dira. MUBILek ezagutzaren sorkuntza zein enpresetara berau transmititzea bultzatuko ditu.
 Ikerketa: ikerketa arloan lurraldearen gaitasunak indartu egingo dira Mubil Zentroa abiaraztearekin, eta horrek ikerketa eta testatzeko garaian gaitasunak emango dizkie gaur egun prozesu horietan parte hartzen duten eragileei. Beste eragileekin batera MUBIL Poloan garatuko diren jarduerek lurraldea mugikortasun adimendun eta jasangarriaren esparruan posizionatzea ahalbidetuko dute.
 Industria: enpresek aldaketa nabarmena izango dute produktuan eta zerbitzuan, baita ere lehiakideen eta hornitzaileen mapan. Gainera, enplegua sortzeko gaitasuna duen mugikortasun jasangarriari lotutako produktu eta zerbitzu berriak sortuko dira.
 Talentua sortzea eta erakartzea: Gipuzkoa Mugikortasun Berriaren arloan erreferente bihurtuko da, eta horrek erraztu egingo ditu arlo horretan lehen mailako profesionalen jarduerak eta horien erakarpena.

Sozializazioa: komunikazio-estrategiak lantzea beharrezkoa da, balioan jar ditzaten mugikortasun adimendun eta jasangarriak, hainbat ikuspegitatik, pertsonei egingo dien ekarpena, ekarriko dien onura.

**Nori zuzendua:**

Mugikortasun Berriaren arloan lan egiten duten Enpresak, Unibertsitateak, Irakaskuntza Zentroak eta bertako administrazioa. Hiritarrak modu orokorrean.

**Programaren estrategia.**

**1. Baliabideak (inputak):**

Aurrekontuak: langileak, inbertsioak eta kanpoko kontratazioak

**2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:**

Proiektuak egiteko pertsonala gehitzea.
Erreferentziazko programetara eragileak erakartzea.
Goi mailako teknologi-baliabideak eskuragarri jartzea.
Produktuen testeatzea.
Irakaskuntza espezializatua.
Mugikortasun berriaren arloan ahalmenak zabaltzea.
Nazioarte mailako sektorearen posizionamenduan laguntzea.
Nazioarteko eragileekin aliantzak sustatzea.
MUBIL Poloko eragileak koordinatzea.
MUBIL Polora eragile berriak erakartzea.

**3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):**

Mugikortasun berriaren arloan prestakuntza duten pertsonak.
Enpresen eskura jartzea mugikortasun berriaren arloko ahalmen teknologikoak.
Mugikortasun berriarekin zerikusia duten enpresak sortzen laguntzea.
Enpresentzat merkatu berrietarako sarbidea erraztea.
Testatzeko gaitasunetik eratorritako produktu eta zerbitzu berritzaileen sorrera.
Talentua lurraldera erakartzea.
Nazioarteko espezialistak eta enpresak erakartzea.

**Programaren arau esparrua:**

9/2016 Legea, ekainaren 2koa, Euskadiko fundazioei buruzkoa.
4/2007 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Erregimenari buruzkoa.

**ENTITATEAREN JARDUKETA OPERATIBOA**

**Urteko helburua:** MUBIL bultzatzea, Polo gisa, mugikortasun jasangarriaren eta adimendunaren (konektatua, autonomoa, partekatua eta elektrikoa) esparruan jakintza, teknologia eta ekimena sortzeko eta garatzeko.

| Adierazlea | Neurri-unitatea | Helburu mota | Azken balioa | Aurtengo aurreikuspena | Urteko helburua | Agintaldiko helburua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Erakunde laguntzaileak | Kopurua | >= | 15,00 | 20,00 | 25,00 | 35,00 |
| Iniziatiba publiko-pribatuak martxan jartzea | Bai/Ez | = | Ez | Ez | Bai | Bai |
| MUBIL Fundazioaren Zubietako operazioa eta bertako laborategiak martxan jartzea | Bai/Ez | = | Ez | Ez | Bai | Bai |

**Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak**

**1. Jarduketa ildoa:**

MUBIL Poloaren jasangarritasuna hedatu, indartu eta bermatzea, mugikortasun adimendun eta jasangarriaren arloko nazioarte mailako eragile garrantzitsu gisa.

5 GENERO BERDINTASUNA % 0,29

7 ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA % 50,49

8 LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA % 16,28

9 INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA % 20,02

11 HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK % 10,62

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Jarduketa ildoa, guztira** | **4.923.470,00** | | | **2024/01/01** | **2024/12/31** | |
| **1.1 Ekintza**<br>Mugikortasun berriaren arloan ekintzailetasunerako (edukiak definitzeko, empresa berrien sorrera bultzatzeko eta prestakuntza emateko) jarduerak | 801.337,69 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | ✔ |
| **1.2 Ekintza**<br>Mugikortasun berriaren arloan ezagutzaren kudeaketarako jarduerak: prestakuntza- eta gaikuntza-proiektuak koordinatzea eta bultzatzea, zaintza teknologikoa abian jartzea, mintegiak eta hitzaldiak antolatzea | 985.499,47 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | ✔ |
| **1.3 Ekintza**<br>Mugikortasun berriaren arloan proba-ingurune bat sustatzeko jarduerak | 523.024,92 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | ✔ |
| **1.4 Ekintza**<br>Mugikortasun berriaren arloan azpiegitura teknologikoak garatzeko jarduerak | 2.485.901,23 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | ✔ |
| **1.5 Ekintza**<br>Euskara Planaren diseinua eta inplementazioa | 10.519,39 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | ✔ |
| **1.6 Ekintza**<br>Berdintasun Planaren diseinua eta inplementazioa | 14.481,94 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | ✔ |
| **1.7 Ekintza**<br>MUBIL Poloaren garapena. Jarduera publiko-pribatuak abian jartzea. | 102.705,36 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | ✔ |

## GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

**Programaren genero garrantzia:** Ertaina

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Populazio osoa

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Diru-sarrerak eskuratzea

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Berdintasun irizpideak Mubileko esparru guztietan zein egunerokoan bermatzea lortu nahi da.
Horretarako, Mubilen Lehen Berdintasun planaren diseinua eta ondorengo inplementazioa martxan jarriko dira.

| | | |
|---|---|---|
| **Kuantifikazioa:** | 14.481,94 | ( % 0,29 ) |
| **Ordainketa kreditauk:** | 14.481,94 | ( % 0,29 ) |
| **Datozen urteetako gastuak:** | 0,00 | ( % 0,00 ) |

| Kategoria | Nola | Nola % | Esleitutako adierazlea |
|---|---|---|---|
| **Go.HO.1.2. 2/2015 Foru Araua eta Euskadin indarrean dagoen emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea garatuta, konpromiso politikoa zehaztea.** | **Go.1.2.3. 2/2015 Foru Arauarekin bat etorrita, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika sustatzeko eta garatzeko GFAk bereizten duen aurrekontua progresiboki egokitzea.** | **( % 100,00 )** | |

## HIZKUNTZA BERDINTASUNEKO PLANA

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Garatutako jardueren gizarteratze prozesuetan euskararen presentzia bermatzea.
Mubil-en barne zein kanpo harremanetan ere euskarari lehentasuna ematea eta bermatzea.
Jada diseinatuta dagoen Mubileko Euskara Planaren inplementazioa martxan jartzen ari gara.

| Kategoria | Nola |
|---|---|
| **8.- Kontratazio administratiboak eta diru laguntzak** | |

## GJH

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Mubilen helburua da mugikortasunaren arloan lurraldeko energia-efizientzia hobetzen laguntzea eta energia berriztagarrien aldeko apustuan bere ekarpentxoa egitea. Hau da, mugikortasun jasangarriaren eta adimentsuaren arloan aurrerapausuak emateko lan egingo du Mubilek. Mugikortasun berriaren arloan, irisgarritasuna eta segurtasuna bermatzen ahaleginduko da une oro, zailtasun eta muga gehien dituztenekin pentsatuaz. Horrez gain, lurraldeko industriak jasangarriagoak izatea eta mugikortasun-azpiegitura berritzaileak izatea lortu nahi da. Honekin guztiarekin, azken xede bezala, produktibitate ekonomikoa areagotzea eta gizarte garapena (lanpostu duinak sortzea, ekintzailetasuna, berrikuntza...) leudeke.

**Kuantifikazioa:** 4.810.245,25 ( % 97,70 )

## Programari lotutako GJH zerrenda

| GJH, Helburu eta Jarduketa ildoak | | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak |
|---|---|---|---|
| | 5-Genero berdintasuna<br><br>Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskato guztiak ahalduntzea. | **14.481,94** | |
| **Helbubura** | 5.c - Genero berdintasuna eta emakume eta emakume guztien ahalduntzea sustatzeko politika egokiak eta lege aplikagarriak onartzea eta indartzea, maila guztietan. | 14.481,94 | |
| | **Jarduketa ildoak** | | |
| | MUBIL Poloaren jasangarritasuna hedatu, indartu eta bermatzea, mugikortasun adimendun eta jasangarriaren arloko nazioarte mailako eragile garrantzitsu gisa. | 14.481,94 | |
| | 7-Energia irisgarria eta ez kutsagarria<br><br>Energia eskuragarria, fidagarria, jasangarria eta modernoa bermatzea guztiontzat. | **2.485.901,23** | |
| **Helbubura** | 7.3 - 2030. urterako, Gipuzkoako efizientzia energetikoa bikoiztea. | 2.485.901,23 | |
| | **Jarduketa ildoak** | | |
| | MUBIL Poloaren jasangarritasuna hedatu, indartu eta bermatzea, mugikortasun adimendun eta jasangarriaren arloko nazioarte mailako eragile garrantzitsu gisa. | 2.485.901,23 | |
| | 8-Lan duina eta hazkunde ekonomikoa<br><br>Guztiontzako hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, enplegu vetea eta produktiboa nahiz lan duina sustatzea. | **801.337,69** | |
| **Helbubura** | 8.02 - Produktibitate ekonomikoaren maila handiagoak lortzea, dibertsifikazioaren, modernizazio teknologikoaren eta berrikuntzaren bidez, besteak beste, balio erantsi handia duten sektoreei arreta eskainiz. | 272.454,81 | |
| | **Jarduketa ildoak** | | |
| | MUBIL Poloaren jasangarritasuna hedatu, indartu eta bermatzea, mugikortasun adimendun eta jasangarriaren arloko nazioarte mailako eragile garrantzitsu gisa. | 272.454,81 | |
| | | | |

| GJH, Helburu eta Jarduketa ildoak | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak |
|---|---|---|
| **Helbubura** 8.03 - Ekoizpen-jarduerak, lanpostu zintzoak sortzea, ekintzailetza, sormena eta berrikuntza bultzatuko dituzten garapen-politikak sustatzea, eta mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen formalizazioa eta hazkundea sustatzea, baita finantza-zerbitzuak eskuratuz ere. | 264.441,44 | |
| **Jarduketa ildoak** | | |
| MUBIL Poloaren jasangarritasuna hedatu, indartu eta bermatzea, mugikortasun adimendun eta jasangarriaren arloko nazioarte mailako eragile garrantzitsu gisa. | 264.441,44 | |
| **Helbubura** 8.04 - 2030. urterako, pixkanaka hobetzea munduko baliabideen ekoizpen eta kontsumo eraginkorra, eta hazkunde ekonomikoa ingurumenaren degradaziotik bereizten saiatzea, Kontsumo eta Ekoizpen Modalitate Jasangarriei buruzko Programen Hamar Urterako Esparruarekin bat etorriz, garatutako herrialdeetatik hasita | 264.441,44 | |
| **Jarduketa ildoak** | | |
| MUBIL Poloaren jasangarritasuna hedatu, indartu eta bermatzea, mugikortasun adimendun eta jasangarriaren arloko nazioarte mailako eragile garrantzitsu gisa. | 264.441,44 | |
| 9-Industria berrikuntza eta azpiegiturak<br><br>Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta jasangarria bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea. | **985.499,47** | |
| **Helbubura** 9.4 - 2030. urterako, azpiegiturak modernizatzea eta industriak eraldatzea, jasangarriak izan daitezen. Horretarako, eraginkortasun handiagoko baliabideak erabili behar dira eta teknologia- eta industria-prozesu garbiak eta ingurumenaren ikuspegitik arrazoizkoak erabiltzen direla bermatu behar da, eta herrialde guztiek dagozkien ahalmenen araberako neurriak har ditzatela lortu behar da | 985.499,47 | |
| **Jarduketa ildoak** | | |
| MUBIL Poloaren jasangarritasuna hedatu, indartu eta bermatzea, mugikortasun adimendun eta jasangarriaren arloko nazioarte mailako eragile garrantzitsu gisa. | 985.499,47 | |
| 11-Hiri eta komunitate jasangarriak<br><br>Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea. | **523.024,92** | |
| **Helbubura** 11.2 - Garraio publikora sarbide egokia duen biztanleriaren proportzioa, sexua, adina eta desgaitasuna kontuan izanda | 523.024,92 | |
| **Jarduketa ildoak** | | |
| MUBIL Poloaren jasangarritasuna hedatu, indartu eta bermatzea, mugikortasun adimendun eta jasangarriaren arloko nazioarte mailako eragile garrantzitsu gisa. | 523.024,92 | |
| **Guztira** | **4.810.245,25** | |

## PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

| Gastuen kapituluak / Capítulos gastos | 2023 | 2024 | Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 2025 | 2026 | 2027 | 2028 eta hurrengoak/ 2028 y siguientes | Guztira / Total |
| 1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL | 350.951,70 | 372.374,00 | | | | | |
| 2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS | 1.600.547,30 | 2.367.179,00 | | | | | |
| 3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS | | | | | | | |
| 4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES | | | | | | | |
| 5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS | | | | | | | |
| **Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes** | **1.951.499,00** | **2.739.553,00** | | | | | |
| 6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES | 2.468.304,00 | 2.183.917,00 | | | | | |
| 7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL | | | | | | | |
| **Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital** | **2.468.304,00** | **2.183.917,00** | | | | | |
| 8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS | | | | | | | |
| 9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS | | | | | | | |
| **Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras** | | | | | | | |
| **Guztira / Total** | **4.419.803,00** | **4.923.470,00** | | | | | |

| Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capitulos | Ordainketa kredituak / Créditos de pago | | Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros | | Guztira / Total | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Estrategikoa / Estratégico | Operatiboa / Operativo | Estrategikoa / Estratégico | Operatiboa / Operativo | Estrategikoa / Estratégico | Operatiboa / Operativo |
| 1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL | | 372.374,00 | | | | 372.374,00 |
| 2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS | | 2.367.179,00 | | | | 2.367.179,00 |
| 3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS | | | | | | |
| 4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES | | | | | | |
| 5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS | | | | | | |
| **Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes** | | **2.739.553,00** | | | | **2.739.553,00** |
| 6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES | | 2.183.917,00 | | | | 2.183.917,00 |
| 7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL | | | | | | |
| **Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital** | | **2.183.917,00** | | | | **2.183.917,00** |
| 8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS | | | | | | |
| 9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS | | | | | | |
| **Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras** | | | | | | |
| **Guztira / Total** | | **4.923.470,00** | | | | **4.923.470,00** |

| Sarreren kapituluak / Capítulos de ingresos | 2023 | 2024 | Gastuari lotutakoak / Afectados a gasto |
|---|---|---|---|
| 1. ZUZENEKO ZERGAK/ IMPUESTOS DIRECTOS | | | |
| 2. ZEHARKAKO ZERGAK/ IMPUESTOS INDIRECTOS | | | |
| 3. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK/ TASAS Y OTROS INGRESOS | | | |
| 4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES | 1.951.499,00 | 2.506.718,00 | |
| 5. ONDARE SARRERAK/ INGRESOS PATRIMONIALES | | 232.835,00 | |
| **Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes** | **1.951.499,00** | **2.739.553,00** | |
| 6. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA/ ENAJENACION DE INVERSIONES REALES | | | |
| 7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL | 2.468.304,00 | 2.183.917,00 | |
| **Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital** | **2.468.304,00** | **2.183.917,00** | |
| 8. AKTIKO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS | | | |
| 9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS | | | |
| **Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras** | | | |
| **Guztira / Total** | **4.419.803,00** | **4.923.470,00** | |